

2015eko JARDUEREN TXOSTENA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Kultur Aniztasunaren Bulegoa
Negociado de Diversidad Cultural

AURKIBIDEA

1. HARRERA

- Harrera protokoloa
- ◆ Auzoetan harrera egiteko programa
- ◆ Alkatearen ongi etorria emateko bilerak
- ◆ Harrera egiten duten elkarten gida

2. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

- ◆ Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna. Martxoak 21
- ◆ Ijito Herriaren nazioarteko eguna. Apirilak 8
- ◆ Haurren egun unibertsala. Azaroak 20
- ◆ Aniztasunaren kudeaketari buruzko prestakuntza
 - ◆ Zerbitzuetako teknikariei eta buruei zuzendutako prestakuntza
 - ◆ Udaltzaingoarentzako prestakuntza

3. BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

- ◆ Sukaldanitzak

4. AHALDUNTZEA

- ◆ Emakume etorkinen kulturantzatasun taldea

5. SAREETAN PARTE HARTZEA

- ◆ Kultur aniztasuneko eragileen sarea
- ◆ Udalanitz sarea
- ◆ RECI Kulturen arteko hirien sarea
- ◆ ICC Intercultural Citis

6. KOLABORAZIOAK DONOSTIA 2016rekin

- Baitara Baita proiektua

7. ERREFUXIATUEN HARRERA

8. DIRU-LAGUNTZAK

HARRERA PROTOKOLOA

Udal erroldako datuek erakusten dute gero eta etnia eta kultur aniztasun handiagoa dagoela hirian. Errealitate horri erantzuteko, sail honek, Aztiker Soziologia Ikergunea enpresarekin batera, harrera protokolo berri bat diseinatu zuen, 2014ko azken lauhilekoan abian jarri zena. 2015. urtean zehar jarri ziren martxan hura amaitzeko gainerako faseak.

Hedapena eta Gizarteratzea

Protokolo berria hedatzeko eta gizarteratzeko bilerak egin ziren auzoetan (Amara, Martutene, Alde zaharra, Antiguoa, Intxaurren eta Altza), eta haietara gonbidatu ziren auzo bakoitzeko bizitza esparru guztietan diharduten gizarte eragileak.

Bestalde, hainbat bilera egin ziren edozein lekutatik hirira iristen diren pertsonei inolako irabazi asmorik gabe harrera egiten dieten elkarteekin. Egindako aurrerapenak azaldu ziren eta gogoeta egin ahal izan zen auzoetarako planifikaturiko harrera ereduari buruz.

Talde politikoekin egindako bileren eta aurkezteko prentsaurrekoaren bidez ere egin zen hedapena.

Parte hartze maila handia izan da gizarteratze prozesuan, eta baita diseinu eta prestaketa lanetan ere.

Ebaluazioa

Ebaluazio prozesurako bilera irekiak egin ziren protokoloaren diseinuan parte hartu zuten eragileekin.

Bestalde, udaleko sailei galdetegi bat pasa zitzaion, izandako koordinazioaren, sortutako baliabideen eta sail bakoitzari egindako funtzio proposamenaren eraginaren inguruan zuten balorazioa jasotzeko.

Harrera hezkuntza esparruan

Hezkuntza komunitatea da harreraren ardatz nagusietako bat, ulerturik hezkuntza komunitatea ez dela bakarrik eskolen, ikastolen eta institutuen multzoa, baizik eta barne hartu behar direla halaber prestakuntza zentroak, ikasketa zentroak, alfabetizazio eskolak, Guraso Elkarteak eta abar. Bi norabide paralelotan egin zen lan: bakarkako bilerak guraso elkarteekin eta prestakuntza zentroetan antolatutako elkarteekin, eta bilerak zuzendaritzarekin, klustroarekin eta irakasle taldearekin. 8 ikastetxek hartu zuten parte: Aitor, Altza, Intxaurren Hegoa, Intxaurren, Igeldo, Jakintza, Martutene eta Zuhaizti.

AUZOETAN HARRERA EGITEKO PROGRAMA

Auzoak espazio hurbil eta egokiak dira kanpotik etorri direnen eta herritarren artean ezagutza bultzatzeko eta elkar ulertzeko, modu zuzen eta pertsonalizatuan. Helburua da auzoko bizitzan bizikidetzatza eta integrazioa bultzatzea.

Abiapuntu gisa, Gros eta Intxaurrenondo aukeratu ziren programarekin hasteko, **SOS Arrazakeriaren eta BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen** laguntzarekin.

Egian, berriz, diagnosis egin zen auzoan egiten den harrerari buruz.

INTXAURRONDO

- Diagnosis egin zen, eta hartarako, harremanetan jarri ginen Auzoko 30 bat erakunderekin.
- Datu-base bat prestatu zen iritsi berriei auzoak dituen baliabide guztiak aurkezteko.
- “Auzoko” programa, euskarara jolas ikuspuntutik begiratuta hurbiltzea bultzatzen duena.
- Jaietako batzordeekin oinarriak finkatu ziren auzoko jaietako ekitaldietan parte hartzea bultzatzeko.
- “Atzeritarren Legeari” buruzko informazio bilera.
- Intxaurrenondoko Kultur Etxean Informazio Gunea ezarri zen eta hartan harrera zerbitzua eskaini zen hamabostean behin.



AUZOETAKO HARRERA PROGRAMA

GROS



Auzoko alor guztietako eragileak identifikatuz eta haiekin harremanetan jarritz abiatu zen programa.

Okendo Kultur Etxean informazio gune bat jarri zen hamabostean behin egiten diren harrera saioetarako.

“Bizilagunak” ekimena auzoko jaietako programaren barruan sartu zen.

“Auzoko” programa hirira etorri berri direnei dago zuzenduta, eta euskara proposatzen du komunikaziorako eta kohesio sozialerako hizkuntza nagusitzat.

“Aktibatu” hitzaldian, auzoko erakunde sozio-kulturalekin elkarlanean antolatua, erakunde bakoitzaren jarduera eta funtzionamenduari buruzko informazioa eskaini zen.

Atzerritarrei buruzko Legearen alderdi praktikoen inguruko hitzaldia.

ALKATEAREN ONGIETORRI SAIOAK

Harrera protokolo berriak ezartzen duen moduan, aldian behin ongietorri saioak egin dira, eta alkateak hartu ditu hirira etorri berri direnak. Horrela bada, udaletxeko Udalbatza Aretoak atea irekitzen dizkie erroldatzean ekitaldi honetan parte hartzeko gonbidapena jasotzen dutenei.

Saio horietan, udal gobernuaren ordezkariak, etorri berriei ongietorria egiteaz gain, Donostiaren aurkezpena egiten du, hiriari buruzko bideoa proiektatzen da, eta bertaratu diren eragileek haien elkarteak eta egiten duten lana ezagutarazten dituzte.

Amaitzeko, kafe baten bueltan biltzen dira udal ordezkariak, bizilagun berriak eta gizarte eragileak, modu informalean elkar ezagutzen hasteko.

2015ean data hauetan egin dira saioak:

otsailaren 18an
apirilaren 15ean
irailaren 16an



HARRERA EGITEN DUTEN ELKARTEEN GIDA

Hirira iritsi berri diren pertsonen harrera egiten dieten eragileen artean behar bezala koordinatzeko, **"Iritsi berria al zara? Lagunduko dizuten elkartearen gida"** gida prestatu da.

Gure hirira iristen diren hainbat jatorritako pertsonen beren zerbitzuak solidarioki eskaintzen dizkieten elkartearen zerrenda dago gida horretan.

Eskaintzen dituzten zerbitzu espezifikoak ageri dira halaber, haiekin harremanetan jartzeko datuez gainera.

Era berean, elkarte horien arteko elkar ezagutza bultzatu nahi da gida honekin, kultur arteko bizikidetzaren baketsuaren alde egiten duten lanetatik merezi duten presentzia publikoa indartzeaz gainera.

Afrikaeuskadi, Agifugi, Asoleus, Bachué, Bagera, Bata Guineaetxea, Bidez Bide, Caritas, Colectivi Saharaui de Gipuzkoa, Decebal, Elkarrekin Bizi, Federación Guipuzkoana de Casa Regionales, Esperanza Latina, Fundación Secretariado Gitano, Cruz Roja, Jatorkin, Kamelamos Adiquerar, Kolore Guztiak, Mestiza, Mujeres del Mundo Unidas, Nasledie, SOS Racismo.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Martxoak 21

Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna.

Udalak prentsaurreko bat egin zuen eta "Donostia Kulturen Arteko Hiria" izeneko erakunde adierazpena irakurri zen hartan, talde politiko guztiek onartua.

Sail honek, hainbat eragile eta elkarterekin batera, baterako programa prestatu du lehenbiziko aldiz. Honako jarduera hauek egin ziren martxoaren 16 eta 28 artean:

- Kanpaina sare sozialetan eta komunikabideetan. "Ez dago besterik". Bidez Bide.
- "Auzoko" programako saio berezia. Bagera.
- Zuhaitz landatzea "Gazteak elkarrekin bizitzen ikasten". Haritzalde eta Kaebnai
- Arrazakeriaren aurkako martxa. SOS. Medicus Mundi. Euskadiko GGKE Koordinakundea.
- Foro Teatro "Ni ez naiz arrazista, baina..." As. Sociocultural Mugimendu
- Ipuin kontari. Kolore Guztiak.

Bere Web gune berria ezagutzera eman zuen bulego honek.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Apirilak 8

Ijito Herriaren nazioarteko eguna



Agifugi, Kamelamos Adiquerar, Romi Bidean ijitoen elkarteen eta Fundación Secretariado Gitano fundazioaren laguntzarekin egin zen jardunaldia.

Alderdi Ederreko terrazan haurrentzako “Gure Bandera” tailerra egin zen. Tailer horretan ijitoen banderak koloreztatu eta muntatu ziren banderaren koloreen esanahia azaltzeko eta ijito herriaren errealitateari buruz gogoeta egiteko.

Bilkura Aretoan ijito herriaren ordezkariak harrera egin zien alkateak, hiriko bandera eta ijitoena trukatu zituzten eta adierazpenak irakurri zituzten.

Harrera amaitzean, Nautikora joan eta Ibaiaren Zeremonia egin zen bertan. Hartan, lore hostoak botatzen dira uretara, dozenaka kandela pizten dituzten bitartean. Nazien holokaustoan izandako heriotzak gogora ekartzeko eta arbasoekiko omenaldi gisa egiten da.

Ijito bandera Udaletxeko balkoian egon zen eta Dbus autobusetan ere ikusi ahal izan zen egun osoan.

Udal ordezkariak ijitoei egindako harreraren eta Ibaiaren Zeremonian.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Azaroak 20

Haurren egun unibertsala

Giza Eskubideen sailarekin batera eta Dar-Dar Produkzioak kooperatibaren laguntzarekin programa bat prestatu zen DBHko lehen zikloko nerabeentzat. Jarduera honen helburua zen ikasleei ezagutzera ematea zergatik, nola eta noiz sortu ziren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Haurren Eskubideen Adierazpena.

Bakarrizketa baten bidez eta ikus-entzunezkoen laguntzarekin, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala irakurtzen hasi zen Dar-Dar Produkzioak eta gero hiru historia antzeztu zituzten. Gandhiren testuekin eta Martin Luther King-en "I have a dream" hitzaldiarekin osatu zen ekitaldia.

Ikastetxeetan bertan antzeztu zen obra eta 30 saio egin zituzten azaroa eta abendua artean.



Bakearen matrioskak



Saioa Luberrin

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

ANIZTASUNAREN KUDEAKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA

Zerbitzuetako teknikarientzako eta buruentzako prestakuntza

martxoak 2 eta 6

EMUN enpresaren laguntzarekin bi prestakuntza saio egin ziren sailetako teknikarientzat eta buruentzat, eta harrera zuzenean egiten duten pertsonentzat.

Migrazioa, hizkuntza aniztasuna, aurreiritziak eta estereotipoak izan ziren landutako kontzeptuak. 9 bulegok hartu zuten parte.

Udaltzaingoarentzako prestakuntza

Azaroak 2

“Polizia Integratzailea” izeneko prestakuntza jarduera Europako Kontseiluaren **“Together”** proiektuaren barnean dago, eta Udaltzaingoaren eta SOS Arrazakeriaren laguntzarekin antolatzen da.

Helburua zen agintariak eta agenteak aniztasunaren kudeaketa eraginkorrean trebatzea, herritarrei, edozein dela ere haien jatorria, tratu berdina eta begirunetsua emango zaiela bermatzeko.

SOS Arrazakeria erakundeko Mikel Mazkianek egin zuen sarrera. Fuenlabradako poliziako ofizialorde J. Francisco Canok azaldu zituen udalerrri horretan orain dela hamarkada batetik hartzen diren neurriak, herritarrei diskriminaziorik gabeko tratua bermatzeko.

Biltzeneko Diogenes Sabanak tresna espezifikoak eskaini zituen eguneroko lanean xenofobia egoerak hautemateko eta haien aurrean esku hartzeko.



49 udaltzainek hartu zuten parte eta aipatzekoa da interes handia sortu zuela.

BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Sukaldanitzak

Ekainak 13

“Sukaldanitzak” ekimenak kulturak eta gastronomiak konbinatzen ditu jatorri desberdinetako pertsonen eta donostiarren artean topaguneak sortzeko, elkar ezagutza eta bizikidetza bultzatu ahal izateko.

Sukaldaritza tailerrak dira eta Donostiako hainbat elkarte gastronomikotan egiten dituzte beste kultura batzuetako pertsonak. Haietara elkarte gastronomikoko bazkideak, auzokoak eta parte hartzen duten elkarteekin loturiko pertsonak joan daitezke. Tailer bakoitzaren ondoren bazkaria egiten da elkartearen bertan eta parte hartu duten pertsona guztiak eta, oro har, nahi duten herritarrak joan daitezke hartara.



Jatorkin Galiziako Etxean



Kamelamos Amaiak Baten



*Nasledie Centro Burgales
elkartean*



*Esperanza Latina Loiolatarra
elkartean*



*Mujeres del Mundo Unidas
Kañoyetan elkartearen*



AfrikaEuskadi Tirainen



*Mongolia U. Artesana
elkartean*



*Mestiza Zubi Muxun
elkartean*



*Mi Nuevo Potosí
Gastronómica elkartearen*

AHALDUNTZEA

Emakume etorkinen kulturantzitasun taldea

Emakumeen Etxean egiten da Berdintasun eta Kultur Aniztasunaren ataletatik bultzatutako ekimen hau. Sorburu kooperatibaren eskutik izaten da dinamizazioa.

Emakume etorkinen ahalduntze prozesuko proposamena da.

Landutako gaien artean aipatzekoak dira:

- Emakumeen eskubideak
- Emozioak eta haien kudeaketa
- Memoria feminista berreskuratzen
- Emakumeen aurkako indarkeria
- Taldeko emakumeen jatorriko lekuen historia
- San Telmo Museora bisitaldiak euskal historia eta kultura ezagutzeko.
- Donostiako hainbat auzotan lantzen ari den Harrera Protokoloaren aurkezpena.

28 saio egin dira



2015. urtean zehar, 20 herrialde desberdinetako 63 emakumek hartu dute parte topagunean.

SAREETAN PARTE HARTZEA

Udalanitz sarea

Aurten Udalanitz sarean Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek eta Gipuzkoako 30 udalerrik hartu dute parte, eta haien artean Donostiakoak.

Honako gai hauek landu dira, kultur aniztasunarekin loturikoak betiere:

- Egindako Harrera Protokolo eredua
- Harrera eta bizikidetza. Sentsibilizazio kanpainak
- Intraneta abian jartzea.
- “Elkar Bizitza Lantzen” topaketak.
- Aniztasunaren mapa egiteko diru-laguntzak.
- Egindako erakunde adierazpenak.
- Aniztasunaren zeharkakotasuna lantzen.



Kultur Aniztasunaren Eragileen Udal Sarea

Udalaren eta pertsona migratzaileei laguntzen dieten elkarten arteko solasgunea da. Bere ibilbidea 2014. urtean hasi zuen sare hau finkatzen joan da aniztasunaren alde egiten duen etenik gabeko lanean.

SAREETAN PARTE HARTZEA

RECI Kulturen arteko hirien sarea

Irailaren 30ean Bartzelonan egin zen mintegian parte hartu zuen sail honek, eta honako gai hauek eztabaidatu ziren hartan:

Etorkizuneko balantzeak eta erronkak

Errefuxiatuen krisiak, babes hiriak eta RECIren betekizuna.

ICC Intercultural Citis

2015. urtean zehar Donostiako Udalak Europako Batzordearen ICC programaren koordinazio bileretan hartu du parte Kultur Aniztasunaren sailaren bidez.

Lisboa

2016. urterako jarduerak zehaztu ziren, haien artean gure hirian egingo den topaketa erlijio arteko elkarrizketaren gaia eta Europan errefuxiatutako pertsonen egoerarekin eta haien harrera antolatzearekin loturiko guztia lantzeko.

Bartzelona

Cities Programak eta Caixa Fundazioak antolatutako bilerak. Aurkeztutako esperientzien artean, SOS Arrazakeria erakundeak "Bizilagunak" programa eman zuen ezagutzera.



Lisboa, irailak 14-15

KOLABORAZIOAK DSS2016EU-REKIN

Baitara Baita proiektua

Maiatzak 4-5

DSS2016EU-k, UPV-EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak eta Kultur Aniztasunaren bulegoak antolatuta, "Erligio aniztasuna. Erronka eta Aukera" jardunaldiak egin ziren.

Arkitektoa Goi Eskola Teknikoko ekitaldi aretoan egin zen inaugurazio jardunaldia eta Agustin Pánikerrek – idazlea eta editorea-, Juan Luis Mendivilek –Psikiatrian doktorea- eta Iñigo de Viarrek –arkitektoa- hartu zuten parte. Hiruek adierazi zuten kontua espiritualtasunaren esparru zabalenean kokatzeko beharra.

Bigarren jardunaldia Aieteko Kultur Etxean egin zen eta Hitlem Abdulhamenek -UPV/EHUko eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea-, Gorka Urrutiak -Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea- eta Feli Goikoetxeak -Irungo Esku Hartze Komunitario Zerbitzuko arduraduna- hartu zuten parte.

Interbentzio horiez gaienera, honako esperientzia hauek aurkeztu ziren:

- Gune Elkartea
- Herrerako Kultura Gune Islamdarra
- Bilboko Erligio arteko Elkarrietzeta Mahaia

Aurretik, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko ikasleek erakusketa bat prestatu zuten erlijio anitzeko gune bat sortzeko diseinaturiko maketekin.



Abenduak 15

Donostia Aldea inguruko sineste desberdinen arteko erlijio arteko elkarrietzeta mahaian parte hartzea.

ERREFUXIATUEN HARRERA

-Europa 2015 Krisi Humanitarioa- Instituzio arteko Mahaian parte hartzea Europara gero eta gehiago iristen ari diren errefuxiatuei arreta emateko.

ERREFUXIATUEN HARRERA Euskadi behar gehien duten pertsonei laguntza ematen dien giza mugimendu aberatua du. <i>Errefuxiatuei laguntza emateko uhiko bide hauek proposatzen ditugu:</i> Elikagaiak eman nahi dituzula? Lagundu nahi dituzula? Erakunde kanpoko elkartek ALOKABIDE T: 944 944 700 errefuxiatuen@alokabide.eus www.alokabide.eus CSSR www.cssr-euzkadia.org T: 944 243 844 GURUTZ GORRIA www.gurutzgorria.es T: 945 222 222	ACOGIDA A PERSONAS REFUGIADAS Euskadi goza de un gran movimiento social que ayuda a las personas que más lo necesitan. Para causar la ayuda a las personas refugiadas se van a reforzar los canales habituales. ¿Quieres ofrecer alimentos? ¿Quieres colaborar? organizaciones no gubernamentales ALOKABIDE T: 944 944 700 errefuxiatuen@alokabide.eus www.alokabide.eus CSSR www.cssr-euzkadia.org T: 944 243 844 CRUZ ROJA www.cruzroja.es T: 945 222 222
--	--

Herritarrei zabaldutako kartela, errefuxiatuei ematen zaien laguntza bideratzeko eta dohaintzen koordinaziorako egungo bideak indartzeko.

DIRU-LAGUNTZAK

Kultur Aniztasuna, Elkar Ezagutza eta Aitortza

Baterako diru-laguntzak

Kultur Aniztasunaren bulegoak guztira 33.000 euro banatu ditu irabazi asmorik gabeko 20 erakunderen artean. Erakunde horiek 22 proiektu aurkeztu dituzte kultura aniztasunaren eta elkar ezagutzaren eta aitortzaren alde.

Zenbateko hori lortutako puntuazioaren arabera banatu da aurkeztutako 22 proiektuen artean.

Diru-laguntzen helburua da jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen artean elkar ezagutza eta aitortza bultzatzeko lanean diharduten gizarte eragileek bideratutako ekimenei eta proiektuei laguntzea.

Diruz lagundutako proiektuen asmoa da kultur aniztasuna, gizarte kohesioa eta elkarbizitza baketsua hedatzeko, sentsibilizatzeko, aintzat hartzeko eta defendatzeko jarduerak aurrera eramatea.

Zuzeneko diru-laguntzak

EH11 Kolore erakundeari Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunean **11Kolore Fest** proiektua aurrera eramateko eta SOS Arrazakeria erakundeari **Gipuzkoa Solidarioa VI- Bizilagunak: Aldameneko familia** proiektua aurrera eramateko.